



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

OBRA ETA ZERBITZUETAKO ARDURADUN ETA ARKITEKTO TEKNIKOAREN PLAZAREN LEHIAKETA-OPOSIZIOA

Maiatzaren 16an, oposizio-lehiaketako hurrengo azterketen datak argitaratu ziren, eta adierazi zen euskara maila (C2 - 4. he) egiaztatzeko proba, IVAPen deialdi bateratuaren barruan egingo dela, ekainaren lehenengo hamabostaldian, BIZKAIAN.

IVAPek jakinarazi digu hizkuntza-eskakizuna egiaztatu behar duten hautaketa-prozesu honetako izengaiak ezin dutela azterketa egin deialdi horren barruan, eta egiaztatu beharko dutela ekainaren 15etik uztailaren 15era, ARABAN, egingo den deialdi bateratuaren barruan.

Hori dela-eta jakinarazten da:

1.- Kasu praktikoak eta/edo teoriko-praktikoak ebazteko probaren eguna eta ordua mantentzen dela, baina parte har dezaketela hautaketa-prozesuan jarraitzen duten hautagai guztiek, eta denen azterketak zuzenduko direla, eta emaitzak argitaratu.

Beraz, ariketa hau lehen adierazitako egun , ordu eta lekuan egingo da, hau da:

Eguna: 2024-06-19 (asteazkena)

Ordua: 9:00etan

Lekua: Erribera kulturgunean (Kontxa Etxeberria 1).

Ariketa egiteko hautagaiek honako hauek ekarri behar dituzte: eskalimetroa, kalkulagailu sinplea, arkatza, borragoma eta boligrafoa.

2.- Euskara maila (C2 - 4. he) egiaztatzeko proba, IVAPen deialdi bateratuaren barruan egingo dela, ekainaren 15etik uztailaren 15era, ARABAN.

Azterketaren data zehatza IVAPek eman bezain laster argitaratuko da.

Astigarragan, 2024ko ekainaren 11n.

Kontxi Urdanpilleta Santamaria
epaimahaiburua